

## KANPAINA EGITEN I

### Jarduera honekin, zera landuko dugu

Elikagaiak botatzearen aurrean erantzukizunez jokatzea.

Kontsumitzaile arduratsuak izatea.

Janaria alferrik ez botatzeko jarraibideak.

Informazio-kanpaina bat egitea.

Garapen jasangarrirako 2., 12., 14. eta 15. helburuak

### Iraupena

Beharren araberako iraupena izango du jarduera honek.

### Beharke dugun materiala

*Botatako elikagaien gaineko ikerketa* eta *Etxean botatzen duguna*

jardueretatik ateratako informazioa.

Eranskinean datozen lanerako orriak.

Ikasgelan ikusteko bideoak:

[Elikagaiak botatzeak uzten duen aztarna](#) eta [Elikagaiak botatzeak uzten duen aztarna 2](#), biak FAOrenak.

[Hondakinak](#), WWF erakundeak babestua.

**Zikloak** 1, 2, 3

### Aurretiazko oharra

Aurrez ez baldin badituzue *Botatako elikagaien gaineko ikerketa* eta *Etxean botatzen duguna* jarduerak egin, proposatzen dizkizuegun bideoak ikustea komeni da.

### Garapena

#### 1. fasea

Bideoak ez badituzue aurrez ikusi, proiektu itzazue orain. Behar den guztietan gelditu eta sortzen diren zalantzak argitu, edukia denek ondo uler dezaten.

Ikasleak taldeka jarri eta jarduerari buruzko azalpentxo bat eman:

«*Ikusi duzuen bezala, elikagai asko botatzen dira gure inguruan. Gu guztiok kontsumitzaileak garenez, badaukagu horretan erantzukizunik. Munduan gosea eragiten duen kate horretan gu ere bagaude. Arduraz jokatu behar dugu. Zerbait egin beharke genuke, egoera aldatzea gure esku dagoelako. Hortaz, talde bakoitzean ekintza zehatz batzuk pentsatuko dituzue, gure inguruan ez botatzeko elikagai gehiago, eta eman beharreko pauso nagusiak biltzen dituen dekalogo bat egingo duzue».*

Lanerako orriak banatu, eta talde bakoitzak bere dekalogo egin dezala.

Talde guztiek amaitu dutenean, talde bakoitzeko pertsona batek beren dekalogo azalduko du. Edukiaren inguruan hausnarketa egin, ahalik eta egokiena eta praktikoena izan dadin.

## 2. fasea

Orain, dekalogoei zabalpena emateko kanpaina bat sortuko dugu, haietan jasotako mezua ahalik eta jende gehienarengana irits dadin, bai ikasleen artean, bai beste eremu batzuetan: lagunak, senideak, etab.

- Horretarako, talde bakoitzak egokien iruditzen zaion moduan jaso beharko du mezua (karteletan, irudietan, bideoan, audioan...), sormena landuz. Adibidez, aukera bat izan liteke hozkailuetan jartzeko iman batzuk egitea, eta iman horietan elikagaiei lotutako mezu deigarri batzuk ipintzea, elikagaiak hozkailuan ez hondatzeko eta bota beharrik ez izateko.
- Elikagaiak alferrik botatzearen inguruko hausnarketaren bat eta landutako dekalogoko punturen bat jaso beharko ditu mezuak. Ohar eta mezu laburrak planteatu beharko dituzte taldeek, zabaltzen errazak, gizartea informatzeko eta sentsibilizatzeko.

Pegatina edo iman horiek egin ondoren, bana ditzatela familiakoen eta senideen artean, elikagai gutxiago botatzen laguntzeko.

## **Lanerako orria**

### **Zer-nolako ekintzak proposatu behar dituzue?**

Dekalogo bat egin behar duzue, elikagaiak ez botatzeko ekintza zehatz batzuk jasotzen dituena. Erraz egiteko moduko ekintzak izan daitezela, gizakiok gure jokabidea alda dezagun. Pentsa ezazue zeuongan eta zeuon inguruan.

### **Dekalogoia egiteko kontuan izan behar dituzuen alderdiak**

**Gure elikadura mota:** azpimarra ezazue behar baino askoz gehiago kontsumitzen dugula, eta horrek kalte handia egiten diola ingurumenari, eta jende asko gose izaten dela, elikagaiak ezin eskuratu geratzen delako.

**Elikagaiak botatzea:** alderdi hau funtsezkoa da; izan ere, kontsumitzaileok, hainbat arrazoi direla eta, elikagai asko botatzen ditugu. Garrantzitsua da gure inguruan elikagaiak zergatik botatzen dituzten jakitea, eta konponbide batzuk aurkitu behar ditugu arazo horren aurka borrokatzeko.